

FAMILIENTZAKO AHOLKU BALIAGARRIAK

2. aholkua. Sare sozialak erabiltzen dituzue?

1. Gaur egun Youtube, Facebook, Instagram eta Twitter dira gazteek gehien erabiltzen dituzten sare sozialak (WhatsApp ez dago zerrendan ez delako sare soziala, mezularitza-zerbitzua baizik).
2. Seme-alaba adingabeak badituzu, gomendio ohikoena da haien profila modu pribatuan mantentzea. Ona da, haien pribatutasuna kontrolpean mantentzeko.
3. Lagun moduan gehitzeko, fisikoki ezagutzen dituzten eta ohiko harremana duten pertsonak besterik ez gomendatu.
4. Garrantzitsua da profilean informazio pertsonal nabarmenik ez jartzea; izan ere, horren bidez, kokapena eta identifikazioa lor ditzakete.
5. Familiaren eta lagunaren pribatutasuna zaindu behar dugu; beraz, informazio pertsonala ez dugu partekatuko horren berri ez badute eta baimenik eman ez badigute. Pertsona bakoitzak eskubidea du bere pribatutasuna eta nortasuna modu egokienean kudeatzeko.
6. Arreta eta ardura berezia izan behar dugu igotzen ditugun argazkiekin. Edozeinek kopiatu eta beste toki batean zintzilikatu ditzake. Argazki bat zintzilikatzean, jakin ezazu edozeinek ikusi dezakeela (familiak, adiskideek, eta beste batzuk) eta Sarean urteetan iraun dezakeela. Argazki bat Sarean zintzilikatu bezain laster, ezin izango dugu besteek egiten duten erabilera kontrolatu. Beraz, beste pertsonak agertzen diren argazki bat zintzilikatu baino lehen, haiei jakinarazi behar diegu eta haien baimena jaso behar dugu.
7. Besteen horman idaztean errespetuz egingo dugu, eta gauza bera eskatuko dugu geurean ere. Gizarte-harremanak dira Interneten egiten ditugun komunikazio gehienaren oinarria. Harreman horiek mantentzen dituen zutabeetako bat zintzotasunak izan beharko luke.
8. Profil edo talde batzuek beste pertsona batzuk iraintzen eta mehatxatzen dituzte, edo errespetua galtzen diete. Horrelako bat aurkituz gero, jar ezazu salaketa anonimoa, sare sozialean edo zuzenean, Ertzaintzaren Informatika Delituen Unitatean.
9. Zergatik erabiltzen dituzte gazteek sare sozialak horrenbeste? Jokabide hori gazteen izaerarekin lotutako zenbait alderdiren ondorio da: autonomia beharra, norberaren nortasunaren bilaketa, egozentrismoa, lagunaren eragina, arrisku-joera, etab.
10. Sare sozialetan "lagunak" onartzeko dugun irizpidea berrikustea garrantzitsua da. Nor da benetan laguna, nor ezaguna soilik eta nor ezezaguna besterik gabe. Halaber, talde bakoitzarekin partekatzen dugun informazio mota ere erabaki behar dugu, kideekin dugun konfiantzaren arabera.